

ZAINTZA

ADINEKOEN BIZI KALITATEA HOBETZEKO DIAGNOSTIKOA

UDALAK ADINEKOEN BAKARDADE EGOERA EZAGUTZEKO PROIEKTU BAT MARTXAN JARRI DU.



Datu demografikoak lortu ondoren, 70 urtetik gorako pertsona guztiak gonbidatuko dira inkesta/elkarrizketa bat egitera eta haientzat dauden zerbitzuen berri emango zaie.

Urkabustaizko adinekoen egoera soziala ezagutu eta hainbat baliabide eta zerbitzuri buruzko informazioa jakitera eman eta haien egoera ezagutzea da proiektuaren helburua.

Proiektuaren metodologia Urkabustaizen bizi diren 70 urtetik gorako pertsonen buruzko informazio estatistikoa biltzean datza, baita sexua, adina eta errola ere, herri bakoitza udalerritik bereizita. Datu demografikoak lortu ondoren, udalerrian bizi diren adinekoen bizi kalitatea hobetzeko proposamenak jasotzeko eta aztertzekeo prozesu bati ekingo zaio, bakardade eta bazterkeria arriskuko egoerak detektatuta.

Ondoren, parte hartzeko interesa duten 70 urtetik gorako pertsona guztiei inkesta/elkarrizketa egingo zaie, bakoitzaren egoera sozialari eta pertsonalari buruz galdetuz. Pertsonaren egoera, iritzia eta beharrak ezagutzeaz gain, adinekoentzat onuragarriak diren eta erabilgarriak diren zerbitzu, baliabide eta prestazioei buruzko informazioa emango zaie.

Nabarmendu behar da bildutako datu guztiak pribatuak izango direla, datuak babesteko politika errespetatuz.

Proiektuaren helburua da Urkabustaizen bizi diren adinekoek dauden baliabideak ezagutzea eta eskura izatea beren premiak konpontzeko eta komunitatearen parte izateko, modu aktiboago, inklusiboago, integralago eta osoagoan.

Martxoaren 13an egin zen bilera irekian, Kukuso herri plataformak deituta, 45 adineko inguruk parte hartu zuten. Topaketan, Udala egiten ari den diagnostikoari eta proiektuari buruzko informazioa eskaini zen. Era berean, herritarrei proposamenak egiteko gonbidapena egin zitzaion, Udalari dei ziezaioten proiektuaren helbururako interesgarriak, errealistak eta mesedegarriak izan daitezkeen ideiak proposatzeko, bai eta Urkabustaizen bizi diren adinekoek komunitatean modu aktiboan parte hartzea lortzeko ere, bazterketarik, diskriminaziorik eta isolamendurik gabe.

ZAINTZA

ESKOLA LAGUNTZARAKO BOLUNTARIOEN SARE BAT SORTZEA

BOLUNTARIOEN SARE BAT ABIAN JARTZEN DABIL URKABUSTAIZKO HAURREI ESKOLA LAGUNTZA EMATEKO.

Gaiarekin kezka duten pertsona batzuen proposamena jasota, eta eskolarekin batera horren gainean dagoen eskaera egiaztatuta, programa boluntarioa aurrera eramatea planteatu zen.

Martxoaren 6an, Udala Izarrako eskolako zuzendaritzarekin bildu zen, aipatutako ideia planteatzeko eta lantzeko helburuarekin. Izarra Herri Eskolaren harrera positiboa izan zen eta proiektuan parte hartzeko prest agertu zen. Borondatezko programa Lehen Hezkuntzako 1, 2, 3 eta 4. ikasturteetako haurrei zuzendutako banakako errefortzu eskolak abian jartzean datza. Izan ere, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan "Bidelaguna" izeneko beste laguntza proiektu bat dago martxan.

Bakarkakoa eta astean bi ordukoa

Ikasleentzako laguntza hau bakarkakoa izango da eta astean bi ordukoa. Izarrako eskolak erabakiko du laguntza nork jasoko duen.

Azpimarratzekoa da eskolako laguntza programa ez dela udal zerbitzua izango; hau da, boluntarioek emango dute. Udalak koordinazioan parte hartzen du eta proiektu hau martxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzen ditu.

Artikulu honen helburua herritarrei irailan, 2024-2025 ikasturtearen hasieran, martxan jarriko den zerbitzu berriaren berri ematea da. Horrela, aipatutako proiektuan laguntza eskolak emanez parte hartu nahi duten boluntario guztiei dei egiten zaie. Interesa duten pertsonak Udalarekin harremanetan jar daitezke apirillean eta maiatzean, datorren ikasturteko programaren hasiera koordinatu ahal izateko.

ELKARTEENDAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA IREKI DA

URKABUSTAIZKO ELKARTEENDAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN BERRI EMAN BERRI DA. ALHAON ERE KONTSULTA DAITEKE.

Honako partida hauek onartu dira:

Udalaren dirulaguntzak Administrazio Batzarrei, 2023an herrietan azpiegitura eta hobekuntza lanak egin ditzaten. 37.000 euroko aurrekontua du.

Udal dirulaguntzak 2023-2024 ikasturtean euskara ikasteko beketarako. Aurrekontua 3.000 eurokoa da. Eskabideak aurkezteko azken eguna 2024ko urriaren 30a izango da.

2023-2024 denboraldian Lehia Kirola,

Kirol Federatua eta Eskola Kirola antolatzeke elkarreendako dirulaguntzak. Eskabideak aurkezteko azken eguna ALHAOn argitaratzen denetik hilabete batekoa izango da. Aurrekontua 13.000 eurokoa da.

2024ko ekitaldian kultura, kirol, gizarte eta euskara programak antolatzeke kultura elkarreendako dirulaguntzak. Eskabideak aurkezteko azken eguna ALHAOn argitaratzen denetik hilabetekoa izango da. 25.000 euroko aurrekontua du.

LABURRAK

JAIETARAKO EDALONTZI ETA PLATER BERRERABILGARRIAK EROSTEA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 4.622 euroko laguntza bideratu du Udalera, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki erakundeentzako dirulaguntzapean.

Horrela, Udalak 5.000 edalontzi eta 1.000 plater berrerabilgarri erosiko ditu udalerriko jai eta ekitalditan erabiltzeko.

LABURRAK

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea martxoaren 1etik maiatzaren 2ra bitartekoa da.

Helbideratutako ordainagiriak maiatzaren 2an zordunduko dira kontuan.

LABURRAK

HAURRESKOLARAKO MATRIKULA ZABALIK

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK, APIRILETIK MAIATZAREN 10ERA.



2024-25 ikasturtean izena emateko epea zabalik dago: apirilaren 22tik maiatzaren 10era, biak barne, bai online bai aurrez aurre. 2023an eta 2024an jaiotako haurren gurasoek edo tutoreek eska dezakete plaza.

- Eskaerak online/aurrez aurre aurkezteak: apirilaren 22tik maiatzaren 10era.

- Behin-behineko zerrendak argitaratzea: ekainaren 10ean.

- Erreklamazioak eta zuzenketak egiteko epea: ekainaren 10etik 14ra.

- Eskabidean atzera egitea: ekainaren 14ra arte.

- Behin betiko zerrendak argitaratzea: uztailaren 1a.

Haurren hasiera eguna haurreskolan: irailak 5.

IKASTOLAKO GALDARAK ORDEZKATUKO DIRA

IKERKETA BAT EGIN OSTEAN, UDA HONETAN EGINGO DA ALDAKETA.



Ikastolako galdarak aldatzeko asmoa dauka Udalak. Gaur egun, galdara nagusia gasoliozkoa da, 30 urte baino gehiago ditu eta mantentze arazo ugari ematen dabil; gimnasiokoa eta eskolaz kanpoko lokaletakoa, aldiz, gas propanozkoak dira.

Bioerregaiarekin, ezpalekin, elikatzen den galdara batekin ordezkatu nahi dira horiek guztiak. Horrez gain, gaur egun dauden eguzki plaka termikoak mantenduko dira. Horrela, jasangarritasun energetikoko ekintzei bultzada eman nahi zaie, eta energia berriztagarriak eta erregai berriak sortzeko eta kontsumitzeko bidean aurrera egin.

Horrelako inbertsioetarako hainbat laguntza lerro daude, Erein, EBEL, Next Generation-en Pre5000 eta Udal Laguntza programek bultzatuta. Udalak azterlan bat eskatuko du, dirulaguntzen zein programak asmoari mesede handiagoa egingo dion jakiteko.

Udalak galdaren aldaketa hori uda honetan bertan egitea aurreikusten du.

HARRIKADA, ZAINZA ZENTROAN JARTZEN DUEN JAIALDIA

UZTAILAREN 26, 27 ETA 28AN HARRIKADA JAIALDIA OSPATUKO DA OSTUÑO ALBOAN.



Techno musikan oinarritutako "anti-festival" bat da, genero disidentzia mota guztiei ongi gietorria egin nahi diena.

Harrika Kolektiboa irabazi asmorik gabeko elkarte da. Duela urte batzuk sortu zen Gasteizen, musika elektronikoaren sorkuntza bultzatu, eta musika eta festa modu seguru eta librean bizitzeko guneak sustatzeko.

2018an, Harrikada jaialdiaren lehen edizioa antolatu zuten Garaion Sorgingunean, eta oso harrera ona izan zuen. Baina pandemia sartzean, horrelako jarduerak geldiarazi zituzten, eta, ondoren, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan Harrika Jaia izenpean hileroko festa elektronikoa antolatu dute. Beti eskema berarekin: Harrika kolektiboko eta Euskal Herriko musika sortzaile banak parte hartuz; eta LGTB+ komunitateari eta kolektibo feministari atea irekiz.

Uztaileko azken asteburua

Bi urtetan Jimmy Jazzen Harrika Jaia egin aritu ostean, Harrikada jaialdia berriro antolatzea erabaki dute, eta aukeratutako udalerrira Urkabustaiz da; zehazki, Ostuño ingurua. Uztaileko azken asteburua (26, 27 eta 28) da aukeratutako hitzordua.

Antolakuntzako Galder Beramendiren hitzetan, Harrikada jaialdia "ohiko jaialdien kontrakoa da". Beramendik ideia hori zehaztu du esanez jaialdi txikia dela, ez duela helburu komertzialik, irabazi asmorik gabeko elkarte batek antolatzen duela eta zainketak erdigunean jartzen dituela. Horrez gain, gainerako, jaialdietan ez bezalako artistak programatzen ditu. "Ezaugarri horiez guztiez gain, musikari dagokionez techno lasaiagoan zentratzea erabaki dugu, hain presente ez dagoena, eta ikusteko eta entzuteko ohikoak ez diren Euskal Herriko eta nazioarteko artistak ekarriko ditugu".

500 lagunentzako edukiera

Beramendik nabarmendu du, halaber, antolakuntzak jaialdia LGTB+ kolektiboko kideak eta emakumeak askatasunez aritzeko gunea izatea lehenesten duela; eta, horretarako, Jimmy Jazz aretoan egiten dituzten festetan

aritzen diren emakumeek osatutako zaintza taldea ere egongo dela.

Harrikada jaialdiak, beraz, techno musika hartuko du, baina baita performanceak, antzerkia eta beste hainbat diziplina ere; eta izango ditu jai gunea, kanpaldi gunea (dena eta furgonetentzat) eta jateko lekua, udal igerilekuen ondoan.

Behin betiko kartela laster emango da jakitera eta sarrerak maiatzaren 1ean jarriko dira salgai. Informazio gehiago www.harrikada-festibala.com webgunean.



ADIN GUZTIENDAKO JARDUERAK

ONDRENGO ASTEETARAKO EGITARAU ZABALA, MOTA GUZTIETAKO PUBLIKOARENTZAT.

Udalak eta Ikasgelak +55 programak hainbat jarduera antolatu dituzte hurrengo asteetarako.

Apirilaren 24an, asteazkena, Maite Franko ipuin kontalariak bi saio egingo ditu 'Inora ez zihoan bidea' izenpean: bata 18:00etan 6 eta 10 urte bitarteko haurrentzat eta bestea 18:45ean 3 eta 5 urte bitartekoentzat. Bi saioak liburutegian izango dira.

Maiatzaren 16an 'Egungo munduaren aldaketak ikuspegi historiko eta geopolitikoan' hitzaldia izango da, 17:30ean, Joaquin Arriolaren eskutik. Maiatzaren 17an, berriz, 'Poetak maiatzean: hitz konprometituak' saioa egingo da 18:00etan. Caritasek antolatuta.

Eta maiatzaren 18an eta 19an, Izaharrako jaiak ospatuko dira. Haurrentzako puzgarri eta tailerrez, goitibeherez, herri bazkariak, kalejirak, kontzertuez eta beste hainbat jardueraz gozatu ahal izango da.



Agurtzane Egiluz Ibareguren

1997 Gasteiz



Saskibaloijokalari paralinpikoa, gurgil-aulkiaren 3.0 mailan aritzen dena.

Hamalau urte zituela ikastolako autobusarekin izandako istripu baten ostean hasi zen saskibaloijogokituan, Gasteizko Zuzenak taldean. 2017-2018 denboraldian egin zuen lehen talderako jauzia, eta Ohorezko Mailarako igoera lortu zuten hurrengo urtean. 2020ko Udako Paralinpiar Jokoen parte hartu zuen.

Es una jugadora de baloncesto paralímpico alavés que camina a nivel 3.0 de silla de ruedas.

Se inició en el baloncesto adaptado tras un accidente con el autobús de la ikastola a los catorce años, en el Zuzenak de Vitoria. En la temporada 2017-2018 dio el salto al primer equipo, y al año siguiente lograron el ascenso a División de Honor. Participó en los Juegos Paralímpicos de Verano 2020.